



HEPATITIS C BIRUSAREN ERAMAILE DIRENENTZAKO INFORMAZIOA, TRATAMENDUA ALFA-2A PEGINTERFERONEN LUMA AURREZ KARGATUAREKIN EGITEN ARI DIRENENTZAT

ZER DA C HEPTATITISA?

HCB Hepatitis C birusaren infekzioak eragiten duen gibelaren hantura da. Infekzio horrek sei hilabete baino gehiago irauten duenean eta odolean ARN-HCBren presentzia (birusaren material genetikoa) dagoela egiaztatzen denean, C hepatitis kronikoa dela esan nahi du.

C hepatitisak edozein adin, sexu eta egoera sozialeko pertsonari eragin diezaioke. Pertsona gehienen kasuan, gaixotasunak ez du sintomarik azaleratzen. Sintomak dituzten gaixoeak, berriz, nekea, jateko gogorik eza eta sabelaldeko mina izaten dute.

NOLA TRATATZEN DA C HEPATITISA?

Gaur egun, tratamendua egiteko hainbat aukera eta alternatiba terapeutiko daude, eta zure genotipoaren eta medikuak aztertu beharreko beste parametro batzuen arabera izango da.

Medikamentu horietako bat ALFA-2A Interferon da. Infekzio birikoei aurre egiteko organismo-zelulek egoera normaletan sortzen duten proteina da. Hori hartzean, hepatitis C birusa blokeatu egiten da, eta ez da ugaltzen.

HCB infekzioaren tratamenduarekin odolean den birusa eliminatu nahi izaten da, hau da, birus-karga hautemanezina izatea eta, hala, gaixotasunaren eboluzioan eragin onuragarria izatea.

Tratamenduaren iraupena aldakorra da.

Farmazia zerbitzuak eman edo emango dizu medikazioa, eta azalduko dizu zertan datzan tratamendua eta bigarren mailako ondorio ohikoenak. Erizainak kontsultan irakatsi dizu zelan prestatu medikazioa, zure kabuz hartzen eta gogoratu dizkizu bigarren mailako ondorio ohikoenak, eta zer egin behar duzun hauek agertuz gero.

NOLA HARTU: gomendatzen da ostiralean hartzea, arratsaldeko azken orduan. Hala, asteburuan, hobeto jasango dituzu ager daitezkeen bigarren mailako ondorioak. Berebiziko garrantzia du interferon beti asteko egun berean hartzeak.

Medikamentua hartzen hasi baino lehen, oso **GARRANTZITSUA** da eskuak kontuz garbitzea eta erabiliko den materiala leku garbian prestatzea, dena eskura egoteko moduko lekuan.



MEDIKAMENTUAK PRESTATZEA

Peginterferon alfa-2A medikamendu paketeak baditu aurretiaz kargatutako luma bat, orratza eta guzti, eta buztitako eskuoihal bat.

Luma aurrez kargatua hozkailuan gorde behar da, (2 eta 8 gradu artean), **baina inoiz ez izozkailuan.**

Atera luma hozkailutik gutxi gorabehera hartu baino ordu bat lehenago.

Egiaztatu iraungitze-data. Ez erabili produktua data hori igaro ondoren.


Ireki paketea eta behatu soluzioa leiho garden baten bidez, ziurtatzeko kolorerik gabea edo hori argia duela, ez ilun.

Medikamentua emateko bidea azar azpikoa da.

Aukeratu injekzioa non emango duzun: izterretan edo sabelaldean.

Injekzio bakoitza azken injekzioa egin den lekutik gutxienez 3 zentimetrora jarri behar da.

Ez injektatu medikamentua azala gorrituta, makatuta edo gogortuta dagoen alderdian.




Eutsi gogor luma aurrez kargatuari esku batekin, eta kendu babesteko tapoia beste eskuarekin.

MEDIKAMENTUA HARTZEA

Garbitu injekzioaren ingurua eskuoihalarekin, eta **EZ** ukitu berriro leku hori injekzioa jarri baino lehen.

Eutsi luma aurrez kargatuari eskuarekin, eta hartu azalaren tolestura bat injekzioa egingo duzun alderdian.

90 graduko angelua osatuz, sartu orratz guztia azalean.





Dagokion lekuan lumari gogor eutsiz, sakatu hatz lodiaz pultsadoreari, eta, ondoren, askatu berehala. "Klik" batek esan nahi du administratzen hasi dela. Adierazle gorria beherantz mugituko da bisorean, eta injekzioa martxan egongo da.



Eutsi luma aurrez kargatuari azalaren kontra hamar segundo sakatuz injekzioa eman arte. Bigarren "klika" entzuten duzunean, pultsadorea bere lekura itzuli dela esan nahi du. Bisorea guztiz gorri egongo da.





<p>Kendu hatz lodia pultsadoretik eta kendu luma.</p>	
<p>Aposituarekin, sakatu segundo batzuk injekzioaren ingurua. Injekzio-zona ez da igurtzi behar.</p>	
<p>Injekzioa jarri ostean, bota berehala edukiontzira edo ontzira erabilitako xiringa, adierazten den bezala.</p>	
<p>Garbitu eskuak</p>	